

tu zein publiko handien laguntzaren menpeko dakusa ugandar idazleak bere herria, izan ere. Eta Afrika, familiako kide ez beti atseginarene pare: «Gaietik kendu izan duzun senide horri nola, hala saiatzen zara Afrikari bere alderki onena aurkitzen. Afrika etxea da, hala ere, bere akats guztiak».

Nigerren deltakohotsak

Tanure Ojaidek ere Soyinka saria jaso du aurten. Ananak ez bezala, nigeriarra dozenaka liburu ditu argitaratuak jada: hamazazpi poesia lan, lau nobela eta zazpi saiakera. Saritu dioten *Songs of Myself. Quartet* lanean, aurreko hainbatetan bezala, bere bizipenetatik abiatutako aldarrikapen kantak poematu ditu: urhobo herriaren tradizioak blaitutako haurtzarora, maitasuna, Nigeriaren egoera politikoa eta ekologikoki suntsituta dagoen bere sehaskako, Nigerren deltako oihartzunak batu ditu. Naturak bere identitatea azaltzeko irudi ederrak eskaintzen dizkio beti Ojaideri; baita bere herrialdeko klase politikoren ustelkeria salatzeko eta kontzientzia ekologikoa aldarrikatzeko ere. «Gizarte giza-tiarrago bati begira sortzen dut, horregatik egiten dut baztertuenen, gutxituenen alde; horregatik idazten dut diktadura militarrenen, ustelkeria politikoren eta patriarkatu jazarlearen aurka», esana dauka. Nigerren delatik abiatuta, betiere. «Idazle ez da airean aldatutako landarea; nonbait hartu behar du lur, eta oso lotua sentitzen naizen Nigerren delta ere bada munduaren eta pertsona izaeraren sehaska».

Sehaska horretan bakarrik ez, Ojaideren beraren idazkeren ere utzi du arrastoa Mendebaldeak: «Nire urhobo herriko kantu eta hotsak entzutearen poderioz ikasi nuen poesia idazten; baita mendebaldeko poetak eskolan irakurriz ere. Bi tradiziook dute eragina nire idazkeran». Idazker horretan, sarritan nabarmendu izan duenez, ahozko tradizioan hazia izateak beste pisu daukate Syracusako (New York, AEB) unibertsitatean egindako literatur ikasketek eta Mendebaldean bizi izanak. Egun, afrikar ikerketen irakaslea da Ipar Carolinako (Charlottesville) unibertsitatean. «Egia da urhobo, nigeriar eta afrikarra naizena, baina, gauza guztien gainetik, pertsona bat naiz». Ojaideren poesia, bestekak beste, txinerara, nederlandera, alemanera, frantsesera eta gaztelaniara itzulita dago.

Euskaltzaleen malura 'reloaded'

Peru Iparragirre

Kepa Altonagaren *Duvoisin kapitainaren malura*; *Bonaparte printzearen itzalean* liburuaren tesieta baten funtsak *sukalkiek*in –Xabier Amurizaren terminologian: muturrera eramandako euskalkia– du zerikusi zuzena. Luis Luziano Bonaparte printzeak bere landa– eta itzulpen–lanetan kolaboratzaile izan zituenei zera eskatu zien euskararen dialektoen azterketa burutzeko: ahalik eta hizkerarik puruenak jasotzeko, ahal zelarik bizitza sedentario eta isolatua zeramatenak galdekatzeko; ikasi, munduan ibili eta kultura–harremanik eduki gabeak izatea ere garantzitsua omen zen *Lotilandia* baranoetako herri–hizkerak morfikatuta, literaturarako eta kulturarako balio zuten hizkuntza kultuagoetatik egindako linguistikaren apalategian gordetzeko. Gau–

za bera dakusago laguntzaile izan zituen euskaldunei eskatu zizkien itzulpenekin: euskalki itxi eta pribatiboetan behar zuten emanak, Bonaparte printzeak bere ikerketari zegokionez, behintzat, erabat arbutuzten baitzuten hibridazioa, orduan ere literaturarako erabiltzen zen –beharrezkoa zen– euskarara *supradialektala*. Ataka horretan laburtu daiteke, nahiz eta agortu ez, Duvoisin kapitainaren



'Duvoisin kapitainaren malura'

Idazlea: Kepa Altonaga.
Argitaletxea: Pamiela.

–hizkuntza kulturarako ere nahi duen ororen– malura.

XIX. mendeaz ari da saiakera honetan Altonaga; Villasanteren, Jean Etxepareren, Lafitteren eta besteren uberari jarraiki kontatzen du, laburki baina ez axaetik, Bonaparte printzeak bere inguruan bildutako idazle–itzultzaile sarearen jarduna, partaideen biografiak eta haien arteko gutbultueetan oinarrituz. Iniziatu gabearantz –eta iruzkingile hau halaxe da– izen– eta datu–zopa galanta izan daitezke halako liburak. Hala eta guztiz ere, Altonagak badaki liburu dibulgatzaileak idazten, eta horixe erakutsi du oraingoan ere. Liburu irakurtzeraz eta entretenigarria da emaitza, prosa zorrotz eta zehatzean emana beti, batzuetan jostalari, euskararen eta euskal literaturaren historian interes minimoa duen edonorentzat liburu erakargarria eta aproposa dela esango nuke, gabeziak gabezia. Bibliografia osatu baten falta izan dut liburu amaizutakoan, saiakera akademikoa izan ez arren pisuzko ikerlana badenez zabalten dituen bideetan aurrera egiteko baliagarria izan daitekeen bibliografia txukun bat; erreferentziak hala–

hola ehizatu beharra aurreztuko lukeena.

Arestian aipatu gisara, eta Altonagaren hitzetan, euskara izoztea zuen helburu Bonaparteren ekinbide zientifikoak. Duvoisinek eta printzearen kolaboratzaileetako batzuek, hizkuntzarekin egiaz lan egin zutenek, hizkuntzarekiko miresmen kontserbatzailea itsutsuan jarraitu beharrean helburu eta ikuspegi zabalagoa zuten hizkuntzarentzat, eta proiektio kultural horrek dialektoko gainditzea eskatzen zuen halabeharrez, ahalik eta jende gehienarengana helduko bazen kultura, literatura, hizkuntza hori.

Etsi amaitzen du Altonagak liburu, euskara batuaren egungo egoerari buruz gogoeta eginez. Hor dator *sukalkiena*, adibide eta guzti, adibide larri eta guzti, azkenaldian diskurtso batzuetan areagotu den hizkuntzarekiko inboluzio–joera argiko diskurtsoekin lotzen duen fenomeno. Nire obesio kuttunenetako baten suari ikatza gehitu dio Altonagak, euskara batuaren eta honen estandarizazioaren funtsezko izatearen arrazoia eta ertzak bi mende atzera ere topatu eta gaur egunera ekarriz.

Oraingoz ez daki

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero


Kontuz, lagun! Liburu hau ezuste batekin amaitzen da, eta beraz, hemendik aurrerakoek jolasa zaputuz dezaket.

Kontakizuna 70 gutunetan eskaintzen zaigu, Gaia deitzen den narratzaileak Helen bere lagunari idatzitakoak, ia urtebetez. Azken idazki bat dago, narratzaile orojakile anonimo batek idatzia, hala–beharrez aurreko testuetatik desberdina, baina, aurreko gutunen formatua errepikatzen duenez, nahasgarria gertatzen dena.

Haria oso simplea da: Gaia Ingalaterran ari da irakasle, eta bere lagun Heleni eguneroko bizipenak kontatzen dizkio, asteko gertaeren laburpen modukoak suertatzen direnak. Kontakizunak errepikakorrik dira, oro har, hitz hanpatuak maiz erabiliak ere (*politita, barrenak hustu, negar...*) hausnarketarik gabe baitatzo.

Salbuespenez, heriotzak gero eta indar handiagoa hartzen du gutunetan. Gaiaren inguruko baten minbizi terminala dela medio. Halere, hemen ere ez dugu hausnarketa askorik, inguruko erreakzioen kronika ez bada. Besterik gabe, azken gutunetan Helen duela urtebete hil zela argitzeko *crecendo* narratibo modukoa da.

Beraz, irakurle–esperientziaren atsegina nerabe batenak diruditen gutunekin asetzear da-tza.



'Zein usain dute oroitzapenek?'

Idazlea: Maddi Etxeberria Otaegi.
Argitaletxea: Erein.

Inoiz ausartzen bada

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Batzuetan, abenturak ez direnak proposatzen zaizkie haurrei. Irakurketa librean aukera dezaten zailagoak izaten dira, amu egoki batekin eskaini ezean. Zer esanik ez genero identitateaz ari diren liburuekin, esku artean duguna kasurako. Halakoetan, haurrei liburuaren bertuteak azpimarratzen dizkiet.

11 ataletan banatutako 60 orrialde eskasekoa da hau, sei ilustrazio eta guzti. Irakurketa errazekoa, beraz. Protagonistak badu sekretu bat: mutila izanik ere, neskaren genitalekin jaio zen. Uste zuten neska zela. Horregatik, June jarri zioten izena. Berak, ordea, Luka deitzea nahiko luke.

Kontaketa Lukak egiten du, bere sekretuaz hitz egiten digu, baina, berak ez uste arren, honezkero denek susmoa dute mutila dela. Zain daude noiz

emango duen pausoa, inoiz ematera ausartuko bada behintzat. Pista pila bat ematen dira horren inguruan.

Hala aurkeztuta, nik uste dut haurrak irakurtzera animatuko ditudala. Izan ere, narrazio hau interesgarria iruditzen zaizkio, irakurlearekin bilatzen den konplizitate arteko, fokuan irakurketa bera jartzen delako, protagonista–narratzaileari gailentzen zaion ikuspegi batekin, berarekiko enpatia sentitzeko bidea eginez, aldi berean.



'Sekretuen hamaika zaporeak'

Idazlea: Oihane Fernandez.
Ilustratzailea: Ainara Azpiazu.
Argitaletxea: Ibaizabal.